

---

PRENTSA OHARRA

**“SOPLO-ARNASKETA SAIAKERAK” IZENEN  
MAKROERAKUSKETAN HAUTATUTAKO BOST ARTISTEK  
UDAN JARRIKO DITUZTE ERAKUSGAI BEREN LANAK  
BILBAOARTEN**

- **María Ibarretxe, Susana Talayero, Charo Garaigorta, Eduardo Sourrouille eta Helena Goñi** dira deialdian hautatutako artistak, eta **5.000 euroko sari bat jasoko dute, gainera.**
- **Epaimahaia Miguel Zugazak, Petra Pérezek eta Petra Joos-ek osatu dute.**

(*Bilbo, 2021eko apirilaren 15a*).- Bilboko Udalak, BilbaoArte Fundazioaren bidez, ezagutzera eman ditu **“Soplo. Arnasketa saiaakerak”** izeneko makroerakusketa deszentralizatuan parte hartu duten artisten artean hautatuak izan diren 5 pertsonen izenak: **María Ibarretxe, Susana Talayero, Charo Garaigorta, Eduardo Sourrouille eta Helena Goñi** izan dira hautatuak. Haien lanak 25 artisten lanen eta proiektuen artean izan dira hautatuak, zeintzuek pandemiak gizartean, ekonomian, politikan eta artean eragin dituen ondorioak aztertu baitituzte.

Irabazle gertatu diren proposamenak osterara ere ikusi ahal izango dira BilbaoArteren Urazurrutia Aretoan, eta artistek bost sari jasoko dituzte, 5.000 eurotan baloratuak. Epaimahaia **Miguel Zugazak, Petra Pérezek eta Petra Joos-ek** osatu dute.

**“SOPLO – ARNASKETA SAIAKERAK”**

**“Soplo. Arnasketa Saiakerak”** makroerakusketa **uriko lau egoitzatan** egon da erakusgai joandako asteetan, hala nola **Zabalguneko Eraikinean, Euskal Museoan, Mariaren Bihotzeko Plazako Aztarnategian eta Abandoko Udaltegian.**

Makroerakusketa, berez, **“Artistak Koronabirusaren Aurka-Ekaitzaren Ostein”** deialdiaren emaitza da; deialdi hori beste batekin batera eman zen argitara, zeinak **“Isiluneen artean”** baitzuen izena, 2020ko ekainean, guztira 100.000 euro baino gehiagoko balioarekin. Bi proiektu horiek **#BilbaoAurrera2020 Planaren** parte dira, zeinaren xedea baitzen COVID-19aren krisiak eragindako ondorioak leuntzea eta arte garaikidearen sorkuntzaren tokiko sektorea sustatzea.

#**BilbaoAurrera2020** Planaren helburuak beterik, Udalak beste ezohiko plan bat jarri du abian, #**BilbaoAurrera2021 izenekoa**, atzenengo hilabeteetan egindako lanaren jarraipena. 15,1 milioi euroko aurrekontua du, eta 43 neurri zehatz gauzatu nahi ditu gizarte-kohesioaren, kulturaren, ekonomiaren eta enpleguaren arloetan; horien artean dago “**Bilbao Arte Gela Irekia- BAG!**” deialdi berria ere, gogoetarako gaitasuna, ezagutza eta artezko ekintzen sustapena eta proiektzioa indartzeko jardueretarako proposamenak hautatzearen.

## **PROIEKTU IRABAZLEAK**

### ***Desescalada walks 2020, Helena Goñi***

Argazki batzuk dira, deskonfinamenduaren lehenengo faseetan eginak, betiere itsasadarraren ondotik ibilbide bera eginez: Areetatik Lamiako aldera, kamioien atsedengune batean zehar, han ez atzera ez aurrera geratuak baitziren, bidean aurrera joatea galarazirik. Formatu erdiko kameran karrete bat, 15 argazki ibilaldiko. Artistak bere buruari ezarritako arauak, konfinamenduaren osteko durduzaduraren ostean lanean hasteko.

### ***GREEN SONGS. Pequeños exorcismos clorofilicos, María Ibarretxe (GREEN SONGS. Klorofilazko saiakera txikiak, María Ibarretxe)***

Landareei so egiteko eta entzuteko une bat, alarma-egoeran bizirik iraun baitzuten, eta, aldi berean, bakardadearen gelditasunean lagun eta isil mandatari izan baitziren. Naturak ulu egiten du, negar egiten, du barre egiten du eta dar-dar ere bai.

### ***Presagios que nos circundan, Susana Talayero (Inguratzen gaituzten zantzuak, Susana Talayero)***

Muntaia-ariketak marrazki baten eta haren horma baten gaineko luzapen hondarrezkoen inguruan. Materialezko buruz buruko batean, margotua eta margotuaren espazioan zeharko barreiatzea prekaritatearen, istripuaren, hausturaren ideari buruz ari dira. «Pandemia aurreko-osteko» garaiez harago, arteak duen ahal iragarle eta askatzailea da artistaren bultzatzaile.

### ***1/400. La presencia inadapta, Charo Garaigorta (1/400. Presentzia ez egokitua, Charo Garaigorta)***

Hiru artefaktu tripodek osatzen dute 1/400 diorama. Loka baitaude kokaturik eta darien formen literatura mehatxuzkoa baita, gertaera bat argudiatzen dute; gerta liteke ibiltzea edo jaustea, hori da haien presentziaren arrakasta mingotsa. Haien itxura ere ez da solidoa, zeren eta hasierako ukipenak era bateko eta besteko kontraerak bilbatzen baititu, gure sentikortasuna informazioz lerratzen delarik. Tripode horien eskalako baliabideek, zeintzuen artean pertsonak ere izan baitaitezke, haien ehundura ematen dute argitara, auzi eszeniko bihurtzean. Gure sentikortasuna posibilitaterantz proiektatzen dute. Hiru eskulturak agertzen dira guri esatera litekeena dela egunen batean existitzea.

### ***Un chant d'amour*, Eduardo Sourrouille**

Konfinamenduaz, Jean Genet-en *Un Chant d'amour* filmetik (1950) abiatuta, zeinaren gaia baita sexuaren eta boterearen mugen urratzea giltzapean gertatzen diren amodiozko harremanetan, Sourrouillek argazki-sail eszenaratu bat proposatzen du, gogoeta goibel bat agertzen duena bikotearen, komunikazioaren, bakartzearen, desiraren, kamusadaren eta hirugarren subjektu baten eraginari buruz.

### **EPAIMAHAIA**

**Miguel Zugaza** artearen historialaria eta museografoa da. Bere ibilbidean zehar, kargu garrantzitsuak bete izan ditu arte-erakunde garrantzitsuetan, hala nola Bilboko Arte Ederren Museoa, Reina Sofía Museoa eta Pradoko Museoa. Hamabost urte Madrilgo museoan lanean eman eta gero, 2017ko martxoan hartu zuen bere gain Bilboko Arte Ederren Museoaren zuzendaritza.

**Petra Pérez** Vanguardia Galeriaren zuzendaria da; 1984an sortu zuen galeria hori, eta bera da ugazaba eta, beraz, sortzailea ere. Zortzi urtean Euskadiko Arte Galerien Elkarteko presidentea izan da, eta hiru urtean Espainiako Arte Galerien Elkarteen Batasuneko diruzaina. 2014an MAV saria eman zioten (Mujeres en las Artes Visuales, Emakumeak Ikusizko Arteetan), galeristarik onena zela jo zutelarik emakume artistak sustatzen eta laguntzen egindako lanagatik.

**Petra Joos** komisarioa da, eta Bilbao Guggenheim Museoko museo-jardueren zuzendaria 2000. urtetik. Lehenago, Madrilgo Reina Sofía Museo Nazional eta Arte Zentroko erakusketa-zuzendari izan zen, 1990etik 1991ra, eta Valenziako Banca Fundazioaren zuzendaria, 1992tik 1999ra.

## **CINCO ARTISTAS SELECCIONADAS DE LA MACROEXPOSICIÓN “SOPLO- ARNASKETA SAIAKE” EXPONDRÁN EN VERANO SUS OBRAS EN BILBAOARTE**

- **María Ibarretxe, Susana Talayero, Charo Garaigorta, Eduardo Sourrouille y Helena Goñi son las personas seleccionadas de la convocatoria, y que además recibirán un premio de 5.000 euros.**
- **El jurado responsable de la deliberación ha estado compuesto por Miguel Zugaza, Petra Pérez y Petra Joos.**

*(Bilbao, a 15 de abril de 2021).*- El Ayuntamiento de Bilbao, a través de la Fundación BilbaoArte Fundazioa, ha dado a conocer las 5 personas, **María Ibarretxe, Susana Talayero, Charo Garaigorta, Eduardo Sourrouille y Helena Goñi**, que han sido seleccionadas entre las y los artistas que han formado parte de la macroexposición descentralizada **“Soplo. Arnasketa Saiakerak”**. Sus obras han sido elegidas entre los trabajos de 25 artistas y proyectos que ha abordado diferentes aspectos sociales, económicos, políticos y artísticos que la pandemia ha originado.

Las propuestas ganadoras podrán volver a visitarse durante este verano en la Sala Urazurrutia de BilbaoArte, y las artistas recibirán cinco premios valorados en 5.000 euros. Esta deliberación ha sido adoptada por un Jurado compuesto por **Miguel Zugaza, Petra Pérez y Petra Joos**.

### **“SOPLO. ARNASKETA SAIAKERAK”**

**“Soplo. Arnasketa Saiakerak”** se ha expuesto durante las últimas semanas en **cuatro sedes de la ciudad** como son el **Edificio del Ensanche; el Euskal Museoa-Museo Vasco; el Yacimiento de la Plaza de Corazón de María y el Centro Municipal de Distrito de Abando**.

La macroexposición fue el resultado de la convocatoria de **“Artistas contra el Coronavirus-Tras la tormenta”**, que se publicó junto otra titulada **“Entre silencios”**, en junio de 2020, con un valor total de más de 100.000 euros. Ambos proyectos formaron parte del Plan **#BilbaoAurrera2020**, cuyo objetivo era amortiguar los efectos de la crisis provocada por el COVID-19 e incentivar también el sector local de la creación de arte contemporáneo.

Tras los objetivos cumplidos del #BilbaoAurrera2020, el Ayuntamiento ha puesto en marcha un nuevo plan extraordinario, denominado **#BilbaoAurrera2021**, que da continuidad al trabajo desarrollado durante los últimos meses. Con un presupuesto total de 15,1 millones de euros, sacará adelante 43 medidas concretas en materia de cohesión social, cultura y economía y empleo, entre las que se encuentra la nueva convocatoria “**Bilbao Arte Gela Irekia -BAGI!**”, destinada a seleccionar propuestas de actividades que potencien la capacidad de reflexión, el conocimiento y el impulso y proyección de acciones artísticas.

### **PROYECTOS GANADORES**

#### ***Desescalada walks 2020, Helena Goñi***

Serie de fotografías realizadas en las primeras fases de desescalada siguiendo un mismo recorrido por la ría: desde Las Arenas hacia Lamiako, siguiendo por una zona de descanso de camiones, que permanecían allí día tras día al no poder seguir la ruta. Un carrito con la cámara de medio formato, 15 fotografías por paseo. Normas auto-impuestas por la artista para empezar a trabajar tras el aturdimiento post-confinamiento.

#### ***GREEN SONGS. Pequeños exorcismos clorofílicos, María Ibarretxe***

Un tiempo para observar y escuchar a las plantas, supervivientes del estado de alarma y al mismo tiempo compañeras y confidentes en la quietud de la soledad. La naturaleza grita, llora, ríe y tiembla.

#### ***Presagios que nos circundan, Susana Talayero***

Ejercicios de montaje en torno a un dibujo y sus extensiones residuales sobre una pared. En un cuerpo a cuerpo con los materiales, lo pintado y su desparrame en el espacio alude a la idea de precariedad, accidente, rotura. Más allá de los tiempos «pre-durante-post pandémicos» es el potencial anticipatorio y emancipador del arte lo que anima a la artista.

#### ***1/400. La presencia inadaptada, Charo Garaigorta***

Tres artefactos-trípode conforman el diorama 1/400. La precariedad de su postura y la literatura amenazante de sus formas, argumentan un suceso; pueden andar o caer, ese es el éxito amargo de su presencia. Su apariencia tampoco es sólida, ya que su tacto inicial se trama en diferentes narrativas, derivando nuestra sensibilidad hacia la información. Los recursos de escala de estos trípodes, que pueden incluir personas, publicitan su textura al convertirla en un asunto escénico. Proyectan nuestra sensibilidad hacia la posibilidad. Las tres esculturas aparecen para decirnos que un día pueden existir.

#### ***Un chant d'amour, Eduardo Sourrouille***

En relación al confinamiento, a partir del film *Un chant d'amour* de Jean Genet, 1950, el cual se centra en la transgresión de los límites sexuales y de poder en las relaciones amorosas en reclusión, Sourrouille plantea una serie fotográfica escenificada que

muestra una reflexión melancólica de la pareja, de la comunicación, el aislamiento, el deseo, la frustración y de la incidencia de un tercer sujeto.

### **JURADO**

**Miguel Zugaza** es historiador del arte y museógrafo. Durante su carrera ha ocupado cargos relevantes en importantes instituciones de arte, como el Museo de Bellas Artes de Bilbao, el Museo Reina Sofía y el Museo del Prado. Tras casi quince años de labor en el museo madrileño, en marzo de 2017 asumió la dirección del Museo de Bellas Artes de Bilbao.

**Petra Pérez** es la Directora de la Galería Vanguardia fundada en 1984, de la que es propietaria y fundadora. También ha sido durante ocho años presidenta de la Asociación de Galerías de arte de Euskadi y tres años tesorera de la Unión de Asociaciones de galerías de arte de España. En 2014 fue galardonada con el Premio MAV, Mujeres en las Artes Visuales, como mejor galerista por su labor en la promoción y apoyo a las mujeres artistas.

**Petra Joos** es comisaria, además de la directora de actividades museísticas del Museo Guggenheim Bilbao desde el año 2000. Previamente, fue responsable de las exposiciones del Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía de Madrid, entre 1990 y 1991, y directora de la Fundación Bancaja de Valencia, de 1992 a 1999.